

NOTA DE PRENSA

AENKOMER Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak Arabako 60 saltoki digitalizatuko dituzte CORE proiektuaren barruan

AENKOMERek, CORE proiektuaren barruan, tresna bat aurkeztu du, Arabako saltokiei heldutasun digitalaren mailari eta digitalizazio-ibilbideei buruzko diagnostikoa lortzeko aukera ematen diena, aholkularitza pertsonalizatuarekin batera.

Doako online tresna baten bidez, AENKOMERek parte hartzen duen CORE (Competitive Retail/Comercio Competitiva) mugaz gaindiko proiektuak aukera ematen die Arabako saltoki guztiei beren heldutasun digitalaren mailari buruzko autodiagnostikoa egiteko eta digitalizazioa bultzatzeko iradokizunak eta ibilbideak biltzen dituen txostena lortzeko. Proba pilotuak arrakastaz amaitu ondoren, tresna modu orokorrean ezagutarazi nahi da, hala nahi duten Arabako saltoki guztientzat lagungarri izan dadin. Gainera, ondorengo fasean, Arabako 60 saltokik coaching digital bat izango dute, eta bertan aholkularitza pertsonalizatua jasoko dute digitalizazio-ibilbideak ezartzeko.

Heldutasun digitalaren autodiagnostikoa

COREren heldutasun digitalaren autodiagnostikorako tresna guztiz egokituta dago Arabako saltokien errealitatera eta beharretara, tokiko hainbat negoziotan probatu den aurretiazko fase bati esker. Tresna hori CORE proiektuaren webgunean eskuragarri dago jada <https://interreg-core.eu/autodiagnostico/> eta saltokien egoera lau arlo handitan jorratzen du: komunikazioa eta salmenta online; bezeroekiko harremana eta fidelizazio-maila; enpresaren eraldaketa digitala; eta datuen eta markaren babesa.

Lehenengo atalean, merkataritza-establezimenduei eskatzen zaie balora dezatela sare sozialetan duten presentzia, web-analitikari, online publizitate-kanpainari eta ordaintza-plataformari buruzko ezagutza-maila. Bezeroen atalean, fitxategiak eta datu-baseak dituzten erantzun behar dute, eta CRMen abantaila eta aukerei, alerta-sistemei edo fidelizazio-prozesuari buruz galdetzen zaie. Hirugarren atala enpresaren eraldaketa digitalarekin lotuta dago. Bertan, kutxako softwarea duten, salmenta-puntua digitalizatuta duten edo biltegia, giza baliabideak, finantzak edo kontabilitatea kudeatzeko aplikazioekin lan egiten duten galdetzen zaie. Azkenik, datuen babesari eta markari buruzko atalean, salmenta-espazioaren zibersegurtasun-maila aztertzen da, baita Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetzen den edo, hala badagokio, marken balioa duen erregistroa betetzen den ere.

Galdetegia bete ondoren, tresnak berak merkataritzaren digitalizazioa sustatzeko iradokizunak eta ibilbideak biltzen dituen txosten pertsonalizatua eskaintzen du.

Socios



Colaboradores



Coaching digitala: banakako aholkularitza Arabako 60 saltokiri

Galdeketatik lortzen diren emaitzak ikusita, Arabako hirurogei establezimenduk azterlanaren ondorioak garatu ahal izango dituzte coaching-prozesu pertsonalizatuaren eta haien beharretara egokitutakoaren bidez. Denda horiek digitalizazio-ibilbide erabilgarria, pertsonalizatua, heltze-maila digitalera egokitua eta mentorizatua jarraituko dute.

Zehazki, fase honek argi eta garbi bereizitako bi zati izango ditu. Lehenengoan, merkataritzari lagunduko zaio bere negozioa digitalki eraldatzeko eman beharreko hurrengo pausoei buruzko erabaki egokiak hartzen. Aldi berean, merkatuan dauden eta erabilgarrienak izan dakizkiokeen tresna eta soluzioetan trebatuko da. Lehen zati hori gaintu eta ekintza-plana erabaki ondoren, merkataritzak adituekin banakako saioak egin ahal izango ditu, haien beharretara ondoen egokitzen diren konponbideak ezartzen laguntzeko.

CORE proiektuari buruz

AENKOMERek Arabako 31 elkarte biltzen ditu, eta lurraldeko 1.530 enpresa txiki eta ertain ordezkatzeko ditu. Bere helburu nagusietako bat da Arabako merkataritza- eta zerbitzu-sektorearen garapena babestea eta sustatzea. CORE proiektuaren barruan dago, Lurraldeko txikizkako merkataritza-enpresa txikien lehiakortasuna hobetzeko, digitalizazio-tresnak erabiliz. Gainera, proiektu honek txikizkako merkataritza-sektoreak gizarte-, kultura- eta hiri-antolamenduko motor gisa duen garrantziaz sentsibilizatu nahi du.

Proiektuak 2022. urtea du jomugatzat, eta 51.000 denda txikiren lehiakortasuna hobetuko du; 1,25 milioi euroko aurrekontua du, eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) % 65ean finantzatzen du, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren bidez. POCTEFAREN bidez finantzatutako proiektu guztien helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldeko integrazio ekonomikoa eta soziala indartzea da. AENKOMERez gain, hauek dira proiektuaren bazkide eta laguntzaile: Gipuzkoako Merkataritza, Iruñeko Udala, Paueko Merkataritza Ganbera, Tolosako Merkataritza Ganbera, Tolosako Udala, Eurecat Fundazioa eta ESTIA.artzelona, Teruelgo Hirigune Historikoko Merkatarien Elkartea eta Paueko Merkataritzako Goi Eskolak laguntzaile gisa parte hartzen dute.

Informazioa jaso edo proiektuan parte hartu nahi duten saltokiek www.interreg-core.eu/ edo AENKOMERekin harremanetan jarri 945 12 35 00 telefonoan edo posta elektronikoan. info@aenkomer.com.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko uztailaren 23an.